EUZKEL-ATALA

ARRASATE (MONDRAGON)

"EUSKELDUNEI, EUSKERAZ"

"Sokoa" eta Susko-langilliak

Tamalgarrija ziñez, geyen idatzi ta irakurten dan aruan euskereakin jazoten dana". ¡¡Errua... Eusko langilliena!! Olan uste du "Sokoa"-k. Ikusten danez sei urte ontan ezdu batzar asko antolau bestela gaurko eragozpenen barri jakingo zuan. Bestetik Eusko-langilliak zenbat euskel izlari dauko? Gutx.¡ Guztiz gutxi. Ikusten danez "gure euskera maitia" maite dutenak jakin arren, gaurko izkillu edo "armarik onen bat eusko gogua piztutzeko, eusko langilletasuna dala lotsatu egiten dira. Kistok esan arren txiruai laguntzen dotzanak berai laguntzen dotsala.

Berak jakindau Aretxabaletan Toyos sozialistiak Udaletxian itzaldi bat egin ebala eta amabost egun geruago, Eusko Langille Bazkuna'kuak eta onek be "Cervantes"-ek ekijan izkeran. Bañan tamalez ez dotsie ezan. Toyos sozialistia baño ixa illebetenago (garagarrillaren 12'an) gaur euskalerrian daguan gizon argixen bat; ta geure errixa eta euskeraren etorkizuna guztiz barrutik ikusten duan Larañaga' Polikarpa yaupari jaun agurgarriak an itzldirik egiñ ebanik. Egun artan Larrañaga yaunak agintariaren aginoua eukan lez, lenbizi egiñ eban "Cervantes"-eran eta gero geure euskera ederrian. Gaur kistar eta euskaldunen txalua Larrañaga jaunak ondo irabazirik dauko bere eten bako lan eta esnatzalle berebizikua dalako. Gure euskalerri maite ontan Larrañaga jauna ispillutzat artuko balute yaupari, Lekaide eta beste yaun askok. ¡Beste txori batek abestuko leuke! Elitzake gaur ikusten dan beste "El Socialista", "Lucha de Clases" eta beste ainbat idazti eta orri inpernuko ikusiko geure baserri eta kaletako euskeldun etxetan. Bañan etorriko da garaia or goixan aitxaturik yaun asko eta beste euskera maitatzale asko Eusko Langilliakin gomutauko dirana. Bañan baliteke belu izatia.

"Sokoa"-ri ezta ez dotsie ezan dagonillaren 4'an geure Batzako lendakari eta euskaltzale sutsu Lasa' Igo yaunak Aretxabaletako Udaletxian euskera eder eta samur samurrian itzaldi benebenetako bat egiñ ebanik.

Otxandixo'ra igande goixian 4 terdietako yaupa entzun, yaun artu, astian beiñ geure atsedeneko egun ederra emazte ta umetxuen onduan igarotiari utzi, eta Aramaixo, "Albiña", menditik lanparrari barre egiten gotzala. ¡¡Otxandixo'ra gabian 10 terdietak aldian etxeratzeko!! ¿Zertara? ¡Euskera ren aurka, eta asteko txanponak uxaketara!

Btzarra "Errotari" euskel-idazliak euskeralduta euki ba'lu an irakurri zituan lege ta beste ingi danak ondo egiñ eikien. ¿Eta badauko astirik euskeraltzeko? Amaitu zuan lau itz sutsuakin Robles Arangiz Imanol'ek euskeraz ondo eziñ duelako itz egin, erderaz, bañan argi diñotzat, "Sokoa"-ri, neu or batian bestian "ni euskelduna naiz" "nik euskera asko maite det" esaten ibilten diran txepel askokin; baño urrinago juango nintzake Robles Arangiz erdeldunakin.

Amaitzeko. Idazki au neuk gura baño luziago egiten jat, eta beste ainbat gertaera ezango nuke bañan, asketsi onekin. ¿Badago beste langillien Bazkun bat ludixan Eusko Langilliak beste maite duanik bere erri eta izkuntzik?

Maitasuna geure erri eta izkuntzari ain argi erakusten daulako ainbat bazkide gutziau dauko Eusko Langilliak. Bañan ez dotso ajolik, dagozenak zintzuak izan ezkero.

Eta ugesaba euskaltzaliak ez diranen aldetik zer? ¡Inpernuko etsaiari baño gorroto aundiagua Eusko Langilliai. Eta ugezaba kistar eta euskaltzaliak diranak? ¡Ezazoltasuna eta ikusi eziña! ¡Ez bildurtu! Onezkero gauza danen errudun gurutzia guk langille txiruok eruan bearko degu.

Bultzi batek beste batekin tope egin dabela? ¡Buzkindariak errua! Bere jabiak olako ordutarako Bilbo'ra eltzeko aginou eta tarrantak edo berebillak bidian txatxilipurdi egin dabela? ¡Burdibiltzaiñak errua! Ola batek porrot egin dabela? ¡Langilliak errua! Euskera galtzen dala? ¡Eusko Langilliak errua! ¿Eta Eusko-Langilliai lagundu leikien euskaltzale laguntzen ez dutenak? ¡¡O... Aik erru bakuak...!!

EUSKEL-EGUNA ANDOAIN'EN

Eta ari laguntzenko arpidia zabaldurik dago, eta eguna ere gañian ill onen 15'etik 22'ra ez gaitian egon atzera begira, yaun batzueri ere aste ontan bialduko dotsagu orri batzuek etxera eta iriki puskat sakelak:

Ugalde, Peli'k, 5 laurleko; Bengoa' Jon, 2; Orobengoa' Erroman, 1,50; Mendizabal'-KKepa, 2; Azkoaga' Andoni, 2; Zaitegi' Irunek, 1. Guztiz, 13,50.

Ondiño berreun laurlekora eltzeko badago zer bota ez egon bildurrez. Poztu deigun euskaltzaliak.

GEIXORIK

Aurkitzen dira Ugarte' Martin Eusko Langille Bazkuneko lendakari jatorra eta bere emaztia.

Poztuko giñake ainbat ariñen sendatziakin bijok.

Donosti'n osakuntza bat egin ondoren guztiz sendabidian agurtu degu Mendizabal' Erroman. Poztutzen nauk.

MIÑ ARTU eta gaizki samar egonda Usobiaga' Purdentzi euskaltzale zintzuaren semetxua. Gaur Jaungoikuari eskerrak obeto dago.

UDALA-MENDI.

Euskaltzale: Andoain'go Euskal-astea gogoan eduki!...

ARTEAGA (GAZTELU-ELEXALDE

Ill onen 30 izan zan elexan emengo parrokiko kuajutore izan zan Agirre Bonifazio jaunaren arimiaren alde urte-urrena. Ainbat lagun batu zan G. B.

Errira urak ekarteko bero-bero diardu lanian injinero ospetzu batek, eta diñuenez, laster gura dogun beste ur edango ei dogu.

Aurtengo udan ainbat gexo egon dira Espartako auzo unian, baña ixa danak osatu dira. Eskerrak Jaunari ta gure osagille zintzo ta jakintzu Undabeitia jaunari

Arto ta babak itxura ona dakerrela ta emengo baserritarrak pozik dagoz.

Andra Mari yayetan, entzun dogunez euskal jayak egiteko "programa" bat agertu dau, urte askuan erritik kanpora egon, da barriro emengo gauzak ikusteko gogoagaz etorri dan Jaun batek. Baña... aurtengua gaitik izteko ustia ei dago, emen eulkal jayak, barik Soria aldekuak biar ei doguz eta.

Alkate jauna, ikusi beste errietan zer egiten dan eta gero ango gauzarik onenak ona ekarri

Bandan yantzan egin gura dabenak, eurak ordaindu dagiela, ta gabaz gau-txoriak lez berandu arte ibilli gura dabenak, beste erri batzuetan be ibilli diralako, bialdu Upoko mendi tontorrera, antxe iñori be lorik eztautzie galazoko ta. Ia onetantxe besterik ezpada erakutsi on bat emoten dautsegun bat edo bateri.

Jai ostian mosoluak argitara atarako ete doguz?

AIKO.

Agorra 15'etik asita 22'an amaitu!...

BERGARA'TIK

JAYOTZA

Garitano Pantzeska'ren emazteak lenbiziko alaba izandu, nola ama eta jayo berria agertzen dira ongi.

Zorionak.

EUSKEL EGUNA

Orain egun batzuek dirala ikusi ditugu emengo euskelzale batzuen artian erri batzuk "Euskeltzale" bazkunak bialduta ill onen 22'an Andoain'go euskel egunerako oirua batzeko.

Alako jaieri lagundu egin biar dautsegu eskua zabalez gure Euskera maitia ziaro galtzia nai ezpadogu.

Gaurtik zabalduko da arpidia (suskriziñua) Eusko Batzokian, eta Odriozola Andonik ere pozik artuko dizue.

ZURRU MURRUA

Juan dan igandean jakindun egin nintzan, alöi gutxi barru ezkontzeko asmuetan dabiltzala gure adiskide bi euskaltzale zintzoak, ziur jakin arte ez nijua oyen izen abizenik jartzera bañan uste det danok ezpada ere, batzuek ulertuko dezutela nortzuek diran.

Bata osoko txit jantzita ibiltzen da nola aste ala jai inguruko errietan ere oso ezaguna da ,astian egunik geineka erritik kanpora igarotzen ditu bere lantokiko zeregiñetan.

Garaya ukan motell, aspaldi ontan apaiz burua ere zain zegok uztarriarekin noiz eramango ete dekan laguna uztartzeko.

¿Uztarri ori ez ote dek emazte gelaren aitak eramandakua apaiz ari? Inoiz ikusi izan diak bei bakarra ezpada ere beko geltoki inguruan zaintzen.

Bestea baserrian bizida, baño atxurretan egindako kallo gutxi ikusten zayo eskuetan. Obe dek izan ere "cuadernua" eskuetan artuta etxerik etxe tximist argien neurriak artzen ibiltzia.

Ia bada mutillak, al bait lasterren ezkontzen zeraten bañan ez aztu gurekin batez ere antzokia gertatzen asten geradenian zuen biar aundia izango dagu eta Txomin aurten antzeslari izan ezin baldin badek, aldekan guztian ez diat uste largako gaitukanik laguntzera etortzeke.

Aurrez zorionak biori.

ITURRIOTZ.

Elizkizun eder, euskel-antzerkiak, euskel-itzaldi bikain, aur euskeldunaren eguna... dantza, pelota, palanka, bertsolariak..., jo ta kea!!

DONOSTIA

ORRI BELTZA

Baiona'ko "Clinica" batean, astelenean ill da Anabitarte Augustin, "Anabi", donostiar euskel-idazle jakintsuaren emaztea.

Tamaldurik bialtzen diogu, lagun ta euskelzale onairi, biotzeko agur samiña ziñez lagundurik aldi garratz ta atsekabetu ontan.

Irakurle, otoi baña ildako adre zintzoaren gogoaren alde G. B. (1)

URKIROLAK

Urtero txapeldun irtentzen diran yola zale jatorrak, ill ontan Barzelona'n egingo dan yola estropada juateko sayoetan ari dira.

Beste urtetako gurendairi jarraitu mutillak.

IZANE

Ill onen 8 ta 15'an "Orfeon Vasco"-k Bilbo'n abestu bear dubela ta emengo abesbatza uri ortara juan biarrian da.

Emengo abeslari askoren artean ori dala ta, naiko gogo txarra sortu da, ez bilbotarrak besarkatzeko gogo sutsua ez daukatelako, egun oitan emen treñero estropaoak diralako baño.

Izane, ¿Donostin estropadak ta, donostiarrak au utzita alde?

KIRIKIÑO SARIA

Oraindik ere bizi gera, askok gure esanairi jaramon ez egiña gaitik.

Lendik, 1.370 laurleko.

Jose M. de Jauregi, 2,50. Orain arte, 1.372,50 laurleko.

AGURTU

Azteazkenean emen agurtu degu Andoaingo jaupari zintzo ta euskelzale sutsua dan Aranguren jauna.

"Kardantxillo" Tabira'ko euskel idazle ta euskelzale zintzoa ere bostekua estutu.

EUSKEL EGUNA

Bigarren izendi ontan ere, diru pixka bat badakarkigu ara emaitz, ta emaitzalien izenak.

Lendik, 153 lauerleko.

Jose M. de Jauregi, 2,50; Zaldua Silberi, 10; Anizeto de Rezola, 15; Tolaretxipi Iñoskentzi, 2; Eusko Etxea, 25; Lasa' Errapel, 1; Donosti'ko Eusko Gaztedia, 100; Olasagasti Jon, 5; A., J., 5 Orain arte, 318,50 laurleko.

ATARRENE.

Euskeltzale: sartu eskua sakelean... atera eskua sakeletik... eman guri txanpon bat!!!...

GERNIKA

Sajoniako Frankenhausen deritxon errian aterik-ate eskean ebilzan eskeko bi, baserritar batek bitxabalian zear tarrant eder baten joyazala ikusi zituzan.

Eskekoak ziranik siñiztu eziñik, gure baserritarrak erri-agintariai dei-egin eutsen eta berialaxe azi ziran eurok, eskekoak tarrant-jaube zelan egin zirean jakin gurarik.

Cassel eritxon tokian "gasoliñia" artzen egozala artu zituezan, eta nundik-norako tarranta ete-zan itandu eutsoenian, eros-agerkaya eta beste bear zirean ingi guztiak argi eta garbi erakutsi eutseezan.

Eta baserritar eta agintari aoa zabalik itxirik eskekook esan eutsen gaur egunian arin ibilli biar zala ta tarranta bear-bearrekoa ebela euren eske "opiziyoe" beteteko...

BETANZOS GOTZAINA

Luno'ko txaunburu gurgarri Omaetxebarria Ermenegildo'ren etxian illabete inguru igaro ondoren, joan da Marruekos'erantz geure erritar Gotzain dan Betanzos Aita.

Luno'ko batartadean pozik igaro ditu egunak Gotzain onek eta bere lan ugariai atseden pizkatxu bat emonik orain bayoaku urrutirantz... Biyoa ondo jauna.

IKERPEN BAT

Gaur igandez Bilbo'ko Coral del Ensanche deritxon abesbatz ospatsuak geure eleiz-nagoziko amarretako mesea abestuko dau.

Eta gu an egongo garianik zetan esan eztago. "Muxika" kontua izan ezkero...

PELOTA

Datorren astelenian geure pelota tokian oneexek jokatuko dabe:

Rubio eta Mondragones'ek Etxabe irugarren eta Txapasta'ri.

ANDOAIN'GO EUSKAL EGUNA

Arpidia: Lendik, 55 laurleko; O.' Jon'ek 2,50. Guztirik, 57,50 laurleko.

Beste nok-emonik eztago, Gernika aldian?...

ETA...

Gaur Barrutiko jayak dira, Zemeterijak, eta "Zubiaurre" errotara, neure emaztiaren jayo-etxera bazkaltzera goaz... Bazatoze, ala?

BELU-MENDU.

Euskeltzale: badakizu egun oietan non bear zaitugun...!

GETXO-NEGURI

ANDOAIN'GO EUSKEL EGUNERAKO

Orain arte, 61 laurleko.

Arrieta' Joseba, 2 laurleko; Otaola' Mikel, 5. Orain arte, 68 laurleko.

Astiro astiro bagoaz gorantza. Asko dagoz ondiño euskeltzaleak ixanta ezer eztabenak emon, ta oneri eskatzen dautset len baño len emoteko ustea daukenak eztayela azkenerako itxi, len baño le nemon baño.

IZPAR BELTZA

Izparringijan irakurri dot gaur Manterola' Batiste, Zeanuri'ko umetxuaren eriotzea, ta ori dala ta neure tamal agurra biraltzen dautzet bere sendiyari, batez bere neure aoiskide maite ta euskel-idazle Manrola' Domeka'ri. Gotzontxu bat daukazube donokiyan, ta au gauza aundiya da. Eruapena euki, ludi kaskar onetan, onelako gauza asko yazoten dira ta ,gaur zeuri ta biyar neuri, biyotza ondo saminduten yaku nozipeñian. Egin bedi beti Jaungoikuaren gurariya.

EUSKEREAREN ALDE

Orain bere ixena etxat gogoratzen, baña lengo egubenian irakurri neban izparringi onetan, idazle zintzo batek ezaten ebana, Eusko Langilletzaz, lengo eguniañ Otxandiyon, ta beste egun baten eztakit non, erderaz egin zitubezalako euren itzaldiak, ori erri euskeldunak ixan arren. Egija da ori, baña idazlagun maitia, badakixu zegaitik egiten dabezan erri orreitan erderaz itzaldiyak? Ba agintariyak debekauta dauskubelako, Bizkaya'n beintzat euskeraz itzaldiyak egitia. Orregaitik ba erderaz egin biar, ez uste beste gauza bategatik. Gure langilliak oso zintzoak oira, ta ondo erakusten dabe, zelan maite ditubezan geure gauzak baña geiago ezin danian, al dan moduan egin biar.

Gauzak euren lekuban geratu ditezan idazten dot au, geure langillen alde.

ALANGOKO BAT.

Idazti-zale: Andoain'en liburu-saltokirik jatorrena arkiko dezu! Euskalerri'ko liburugin guziak, bazterretan ditusten euskel-eusko-idazti oro, naiz iñoizko larru-meedun zaarrak, antxe erakutsiko dizkizute...

IZURTZA

NASKALDIJA

Bilbotik etorri dira Ortiz de la Riva bere emaztia eta Haya Kontxa lobia.

Reinosa'tik etorri dira Gerediaga Polentzi eta Gerediaga Erroman anaiak.

Bermeora juan dira, Gerediaga Imanol bere emazte Benerandegaz.

Bilbo'tik juan da etorri dira Irastortza Adiran eta bere alaba Miren.

Otxandiora juan dira Askorbebeitia Paulliñe eta Azkunaga Imanol.

OTURUNTZA

Eguenen Garzia Salas Erroman'en euskeldun txoperrak (bere izen abizenik eztakigu) bere urte betetia dala ta egun alai bat igaro ta batu zituan neska lagun batzuk, erriko aradauetxian Oturuntza eder baten eta guztiz umore onakin eta abesti batzukin amaitu eben egun gogoan garria.

Olantxe mutil datorren urtian be eta bi tartian ondo bizi.

JENDIA GEITU

"Beko torreko" Gangutia Anburtzi eta bere emaztiak amaika garren semia ekarri dabe.

Baita Garauntzako Jeolimok eta bere emaztiak alaba eder bat munduratu dabe.

Zorionak bitzuori, eta urte askuan alantxe geitu zeuen sendi ederrok.

DANAK LANIAN

Aspaldien izan danik txindi batze ugarien dabil jente guztiak erri onetan, eta osasunagaz irabaztia euki ezkero oroan dana izaten da sendietan poza eta alaitasuna.

Baserri etxietan ezta ikusten bape albidade daukan gizonezkorik guztiak diardue euren lanetan batzuk ola lanetan, eta bestetzuk arrobi edo kanteran, bestetzuk Garzia' Sales'en baratzeko ormak altzetan, onek lauki polita jarri dabe baratze orretan, baita zugatzak bota eta arri lautzen bere. Orregaitik, baserri lanak egiten, agiri dira emakumiak arbi eraiten aberetxuari janaria eruaten, abar eta abar. Baita egunokin erreka baztertxuak bere ondo txukun ikusten oira, oge zapi zuriak eta arkondara ederrak ondo garbituta agiri dirala, baita jaietan, jana gertetako lur lapiko zarten eta topin banakak bere.

Eta jaietarako, zer? laster doguzala ganian da gaur artian beintzat, guk dakigula, eztago barririk, baña itxaropena daukagu gure udal gizon argiok zer edo zer gertauta izango dabieta eta bitartian itxaron nazai.

ARTZAÑA.

Beste iñon arki ezin zenduana... antxe!...

MAÑARI

YUAN-ETORRI

—Asteartian egon ziran emen Kirikiño'ren illobiyan otoiz egiten Areatza (Villaro) ko txaunburu-lagun dan Gorostiaga' Eukeni ta Aldekoa' Yon Martin Zeanuri'ko txaunezkindariya.

—Haro'ra yuan ziran Kamiruaga' Basili ta Kapanaga' Patxi.

—Bilbo'n dago egun batzuetan Ortuoste' Pele neskatillia.

—Emen dago egun batzuk igaroten Intxaurbe' Miren neskatua.

—Bilbo'n yaiyak igarota etorri ziran Cortina' Kistiñe ta Margarite aiziak eta Ortuoste' Yon mutikua.

—Gastelugatxe'ko Yon Deune'ra yuan ziran Bizkarra' Nikola, Bilbao' Bizenta ta Ertzilla Benantzi bere emaztiaz.

—Sukarrieta'ra Goiti' Ipolita ta Zabala Pillipa.

—Abadiño'n egun batzuk igarota etorri zan Uranga Albiñe andrea.

ZAURITU

Igaro dan asteartian Azkoti-erdiko arrobiyan (kanteran) lanian ebillela, arri ta lur pillo batek azpiyan artuta zauritu zan, Landaluze'ko Gorospe Martin gizona. Beso bat atara ta ganera gorputzeko alde batzuetan be zartada ederrak artu zituzan. Beriala erueben Basurto'ko Geixotegira. Oiñ, oberantz andiya eginda Dima'ko bere etxian aurkitzen da.

Ariñ eta ondo osatzia opa dautsagu.

EZKONTZA

Eguenian ezkondu zan Amantegi' Gixane (Encarnación) emengo neskatilla gaztia Agirre' Patxi Ubide'ko mutillaz.

Zoriyon ugariyak.

OBA'RA

Biyar, astelenez, emendik ainbat gazte yuango da Oba'ko San Andoliñ yairi. Oitura dan lez batzuk amarretako mezara berbaldiya entzuten yuango dira ta enparauak arratsaldian. Beti lez, arratiyarrak au, ta arratiyarra ori, zer esana ugeri ekarriko dabe.

Oingo, Oba'ko atsuen batzuk asi dira "arraskoletxick" gertetan ¡eta ze gozo egin be! Onetan eurek langorik eztago.

KOBAK IKUSTEN

Eguen arratsaldian izan ziran Salluente aldeko kobak ikusten Durango'ko bost mutil gazte.

Gauza polit asko ikusita pozik yuan ziran euren etxeetara.

URKIOLA'RA

Lengo domekan, udako geiyenetan lez, lagun asko yuan zan Urkiola'ra. Arratiya'ko atso-aguretxo batzuk be, oitura zarrari yarraiturik, euren llobatxuak asto ganietan dotore ipinita poz-pozik igaro ziran Urkiola'runtz.

Uda onetan, uda-igarotzalle asko egon biar dau. Beintzat, an inguruetan guztitariko jente asko ikusten da, ta yatetxe guztiyak be ondo beteta ei dagoz.

Olan obe da; udan ondo badabilz neguan eztira txarto ibiliko ta. Yatetxe yaubiok eztira asarre izango.

MENDIGOIZALIAK

Igandian eguraldi ederraz mendizale asko yuan zan emengo atxetara. Berantzakuan, lepoko pardeltxuak baso-makatz eta okaranez ondo beteta eroiezan. Bai ba, Bilbo'ko merkatuan baño gauzia merke samarrau aurkituko eben eta.

Gure mendiyetan aurten dauen eriaz "vejetariano" diranak ¡a ze trizkantzia eingo leukien!

Aurtengo erie ezta beti egoten eta gura dabenak ointxe "aprobetxau".

UDA-ERRI POLITA

Geure erritxuau uda-erri polita dala esan bear dogu. Geu beintzat, arriz inguruturiko baster onetan ondo pozik bizi gara. Uda gentiak be atsegiñez dagozala diñue.

Ur eder eta ugariyak daukaguz, eta danak bertan sorturikuak, zugazti ederrak, basuetan eguraztoki politak eta ganera erri-onetan nok agindu be beinbe ezta palta izaten.

EGURALDIYA

Astearte arratsaldeko lauretan oñeztu ta turmoi ots itzelakaz bat-baten goi guztiya illundu zan. Esan zeinkian uriyola aundiren bat ganian gendula; baña etzan izan alan. Yausi zan euri apurre, lurre apur bat buztiteko laiñ baño etzan izan.

Nozik beiñ euri zarrastadatxo batzuk ondo etorriko litzakez ereiñiko arbiyek arin erne daitien be.

Egunokaz bero sargoriya dago, ta batzuen eretxiz yarraitu be olan eingo dau.

MAÑARIKO.

Aurtengo gure "Txabola"... gauza aundia izango dala, alegia!...

MUTRIKU

ANDOAIN'GO JAIA

Bilbo'n bizi diran mutrikuarrak oso ondo portatu dira oraingo onetan; ta uste osoan gaude beste aldetan daudenak ere ez dutela naiko gutxio izan.

Etorri mutillak erri zarreko arpidea gizentzera.

Lengua, 45 laurleko.

Usabiaga' Felix, 1 laurleko; Pagoaga Josu, 1; Arreitunandia, Pepita, 1; Arreitunandia, Ramona, 1; Egurbide Pantzeska, 2; Arratibel Joxe, 1; Arkotxa Miren, 1; Arkotxa Tomasa, 1; Arkotxa Andoni, 1.

Bilbo'n bilduta:

Arrizabalaga Domeka, 1; Urresti' Joseba, 1,25; Urresti Patxi, 1,25; Urkidi Luis, 1,25; Zenekorta Pedro, 0,75; Arrieta Juanito, 1,25; A. E., 1,25; Astigarraga Angel, 1,25; Altuna Imanol, 4,25; Lekube Iñaki, 3,50. Guztira, 72 laurleko.

Gure treñeruak baliza'ri, bira pixkor asko ematen asi zaigu; orain bezelako arraunketa eramaten badegu... ez gera azkenengo geratuko.

"BIOTZKADAK"

Jauregi' Luis'ek atera duan bertsuetako liburu politaren izena degu "Biozkadak" Irakurri irakurle ta etzaisu damutuko; sei errielian saltzen daude Arrasate'ren dendan Zorionak, Jauregi lagun.

ABERRI.

Euskeltzale: bizkortu..., zuzpertu..., jaiki..., bizi..., ekin!!...

OIARTZUN

Erri ontako abeslari txikiak Saturraranen izan dira Irigoyen Paulo jauna buru dutela. Aundiak berriz Erniora omen dijoaz. Urkiola'ko elizan berritzeko egin dan zozketan Elizegi Joakina saltzalleari "Alfa" josteko tresna ederra erori zaio. Lengo astean ezkondu dira Lizarraga'ko Mujika Julian, Etxetxiki'ko Lekuona Kristina'kiñ; oro bat gorosketa ta Larre'ko mutillak, Iraurgi eta Azkue'ko neskakiñ. Zorionak danari. Agorraren lendabiziko meza nagusia Goikoetxea Juan Mari txistulari jatorra zanaren gogo aldez izango da, beren lagunak ateratzen diotena (G. B.)

Andoaingo Euskal Egunetarako arpidea:

Mitxelena Jenaro jaunak, 5 laurleko; Aranburu' Leonzio, 5; Larrañaga J. D., 5; Mitxelena Prantzisko, 2; Labandibar Jose, 2; Uranga, Erraimundo, 2; Martiarena Dunixi, 2; Arbide Jon, 2; Lekuona Pilar, 2; Martiarena Joxepa, 2. Oraindaño, 29.

ENARA.

URDULIZ

EUSKO BEARGIÑEK

Datorren igandian irasi (fundau)-ko dabe erri onetan Eusko-langilleare nalkartasuneko batzokie.

Bear, bearrekoa da soziedade au ba Bizkaiko lantoki aundietan emengo inguruko langille asko dabil ta geyenak ardi galdue lez, orregaitik ba alkartu guztiok alkartasune inderra da ta, ta ez itxi beargin gorriyen olgagarri izaten.

Erduzie ba igandian guztiok Urduliz'era ba eusko langille batek azalduko dautsue zelango onurek datortzuezan alkartasun onetan, batzarra izango da Elortza auzoko erriko etxian.

TXIBERRI.

ZEANURI

NASKALDIJA

Saturrarandik etorri dira abade ikasleak Burgos'tik ango diputadu dan Errotaetxe Andoni.

Gazteiz'tik etorrita emen aurkitzen dira Etxebarria andereñoak da Alegria Miren auron lengusiña.

PELOTA PARTIDUA

Datorren illean 8'an Andra Mari Uriko egunian euko dabe Areatza'ko pelotari onenak Artamendi da Juanito Zufiria da Bilbao aurka oneik azkenengoak garriko gorridunak da besteak azule. Pelotak eskatuta dagoz yokaldi orretarako eta gar-andie dago emen ingurian aurok ikusteko.

SAN ADRIAN

Beobide'ko auzunian bertako basotxano edo ermitan urtero lez ospatuko da mesa da itzaldeagaz Andra Mari Uriko egunian.

GOGO-INARKUNAK GORBEI'EN

Datorren illaren 4'an asiko dira Goikoetxea'ren etzantegian ango inguruetako artzañentzat.

Emollea Goikoetxea, josulauna, Eleuterin anaya.

Kanpoko axe-onak dagozan ezkero, barrukoak be ondo izango barrutatzea urtero. Auron arazotzaz geyago be ezango dogu lazlez.

NESKATOTXO BAT ZERURA

Gure sendi onetan il yaku Manterola' Batistze labotxoa Manterola' Pilipa ta Maria'ren alabea zazpi urtekoa. Benetan ume zolie...

Jaunak, gura gauza guztietan izan bedi.

BASERRITAR BAT.

"ZERUKO ARGIA"

Arki-bidea:

Aita Adoain Agurgarria Euskalerrian, Udazkena, Andra Mariaganako Egiazko Jaiera, Coronula Stellarum duodecim, Menpekotasun gozo", Aozko Aitorpenaren Eginbidea, Ikasi...! Ikasi...!, Abiñako Antonio Deuna, Berriak.

La próxima Página Agrícola se publicará el día 10 DE SEPTIEMBRE

y en ella publicaremos artículos de gran interés para nuestros labradores y para todo aficionado a la agricultura.

Lector:

Difunde entre tus amigos estas páginas de interés material. Ellas pueden ser la ocasión para hacer brotar en sus almas el afecto a todas nuestras cosas, aun las más elevadas.

CEMENTO PORTLAND
"ZIURRENA, S. A."
(EL MAS SEGURO)
Propiedad de la Sdad. marca "Cangrejo".
FUEROS, 2. :-: TELEFONO. 12.258

URALITA
Gran Vía, 5. 1.°—Teléfono 11079

Ecos de Sociedad

VIAJES

Después de una corta temporada entre nosotros, regresó a Valladolid el ilustre prelado de aquella archidiócesis, doctor Gandásegui.

—Regresó de Barcelona don Julián Garizábal.

—Volvieron de Murguía las señoritas Soledad y María Jesús Latiegui, acompañadas por su madre, la señora viuda de Gastelu-Iturri.

—Regresó de Villafranca de Oria don Florencio Gómez del Val.

—Fué a Oviedo don José Cordera.

—Volvió de Villafranca de Oria el virtuoso sacerdote don Deogracias Eguiguiza.

—Ha salido para Galicia y Portugal el joven escultor Enrique Barros.

—Ha ido a Lequeitio a pasar unos días nuestro querido amigo don Fernando de Arrillaga.

—También salieron para Lequeitio las simpáticas señoritas Teodora y María Paz Zabaleta.

—Para Urquiola y Barcelona ha salido nuestro particular amigo don Gabriel de Astolvia.

—Han llegado al Gran Hotel del balneario de Solares:

De Madrid: doña Cándida Mingarro, don Salvador Díaz, don Pedro Jiménez y señora, doña María Faures, don Mariano Martín, don Eduardo Alonso, don Jesús Castillo y señora, don Manuel Fernández, don Guillermo González, doctor don Norberto de Reynoso y señora.

De Bilbao: doña Carmen Basterra, doña Aurora Mogrovejo Sánchez y hermana, señorita Dolores González Ibarra, don Hilario Maté, doña Clara Goya, doctor don Jesús Tribes-Arrospe.

De Durango: doña Juana Malaxechevarría.

De México: doña Ana Gómez.

De San Sebastián: don Ignacio Velasco.

De Santander: señorita Concepción Calzada, don Germán Obregón, don Justo Bravo, doña Esperanza Gutiérrez, doña Primitiva Obregón.

De Vitoria: don Valentín Movilla, señora e hijo; don Bruno Atauri.

De Valladolid: doña Ramona Sanz, don Fructuoso Pérez Minayo, doña María Gómez, doña Ignacia García.

De Salamanca: doña Lucila García, doña Sabina García.

De Sevilla: doña Josefa Ruiz.

De Palencia: doña Esperanza Ruiz, doña Casimira del Barrio, doña Luisa Herrán, doña Diosdada Obispo, don Pedro Monés.

De León: don Angel García, doña Emedina del Reguero, don Modesto Cimadevilla.

De Burgos: don Graciano Peraita.

De Cáceres: doctor don Nicolás María Montero, don Arsenio Hernández.

De Logroño: doña Dolores Santamaría.

De Zamora: doña Magdalena Rueda.

De Murcia: don Manuel Martínez.

De Segovia: doña Valentina Molinera.

De Huelva: don Eusebio Gómez Arregui y señora.

De Córdoba: don José Alvarez.

De Ciudad Real: don Adrián Nogales.

De Valencia: doña Angeles Carbonell.

De Toledo: don Damián García.

De Gerona: don Manuel Rodríguez.

De Málaga: don Fernando Benavides.

De Cádiz: doña Carmen Estauriaza.

De Guadalajara: doña Desideria Tabernero.

De Badajoz: don Cándido González.

—Viajeros llegados a Sobrón:

De Jerez de la Frontera: don Fernando Lassaletta y señora, doña Isabel Carreño, don Manuel de la Quintana y don Agustín de la Quintana.

De Zaragoza: don Manuel Masip y señora, don Francisco García, doña Ignacia Bosqued (viuda de Aragües), don Ramón y doña Cristina Aragües, don Juan Bello, don Antonio Guallar, don Ramón Esbec, con su señora y su hijo Enrique; don Benito Costa, don Jerónimo Jiménez, doña Gregoria Jiménez, don Rafael Moreno, don Manuel Lazcano y don Máximo Estables.

De Pamplona: don Leopoldo Cilveti y don Francisco Oyarzun.

De Castellón: don Manuel Auban.

De Tudela: don Manuel Calvo.

De Madrid: don Antonio Lapuerta, con su señora y su hijo Clemente; don Andrés Bernard, don Antonio, doña Carola y doña Angeles Arderius; don José Velasco, don Tomás Serrate y señora, don Manuel Cascajosa, don José Cardosa y señora, doña Loreto Ibáñez, don Genaro Soubrie, don Francisco, doña Josefa y doña Dolores Mato; don José Pardo y señora, doña Teresa y doña María Goya, don Manuel Cocho y don Faustino Marcos y señora.

De Bilbao: don Jorge Ugarte y señora, don Rafael Uribe, don Pedro Arregui y señora, don Alfonso Careaga, don Rafael Calzada, don Serafín Martín, don Francisco Azpeitia, don Demetrio Retolaza y familia y don José Alvarez.

De Tolosa: doña Eugenia Arrúe y don Fermín Orgueiztegui.

De San Sebastián: don Ramón Azurmendi y señora y don Manuel Esnaola.

DESDE EL LUNES, DIA 2
IMPORTANTES REBAJAS
en TODOS LOS GORROS Y TRAJES de baño de señora, caballero y niño.
Albornoces fantasía de 37,75 a 27,75
Francisco de Larracoechea
Correo, 15, esquina a Sombrerería.

VISITA DE INSPECCION

El general Sanjurjo, en Bilbao

A las cinco menos cuarto de ayer tarde llegó en automóvil a Bilbao, procedente de Santander, y acompañado de sus ayudantes, el general Sanjurjo, director general de la Guardia civil.

Inmediatamente se trasladó al Gobierno civil, visitando al gobernador. Luego se mudó de ropa.

Permanecerá en Bilbao por lo menos hasta hoy, hospedándose en el Gobierno civil.

Hoy revistará las fuerzas de la Guardia civil en su cuartel de La Salve, pues su viaje tiene carácter de inspección.